

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2461

880/2024 EBAZPENA, apirilaren 22koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen diren onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak eta behin betiko esleitzen diren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa duten Menpekoak/Langileak lanbide-taldeko Zerbitzuetako Langilea – Zerbitzu Orokorrak kategoriako / lanpostu funtzionaleko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko martxoko zikloan eskainitako destinoak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 21eko 1315/2021 Ebazpenaren bidez, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrerako deialdia egin zen Menpekoak/Langileak lanbide-taldeko Zerbitzuetako Langilea – Zerbitzu Orokorrak kategoria / lanpostu funtzionalerako (azaroaren 8 EHAA 221. zk.), eta hain zuzen, prozesu hori Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren eranskinean jasotako oinarrien arabera arautuko da.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren ekainaren 26ko 597/2023 Ebazpenaren bidez (uztailaren 6ko EHAA 128. zk.), zeina aldatu egin baitzen uztailaren 19ko 946/2023 Ebazpenaren bidez (abuztuaren 11ko EHAA, 136. zk.), eta abuztuaren 9ko 1085/2023 Ebazpenaren bidez (irailaren 7ko EHAA, 171. zk.), lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko martxoko zikloko eskaintza argitara eman zen Menpekoak/Langileak lanbide-taldeko Zerbitzuetako Langilea – Zerbitzu Orokorrak kategoria / lanpostu funtzionalerako.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren martxoaren 4ko 169/2024 Ebazpenaren bidez, argitara eman ziren onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak eta behin-behinean esleitu ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa duten Menpekoak/Langileak lanbide-taldeko Zerbitzuetako Langilea – Zerbitzu Orokorrak kategoriako / lanpostu funtzionaleko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko martxoko zikloan eskainitako destinoak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren bidez, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren prozeduraren oinarriak onartu ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoan oinarritzko destinoak betetzeko. Bada, erabaki horren eranskinaren 9.8 oinarrian ezarritakoarekin bat etorritz, epaimahaiak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari bidali dio Menpekoak/Langileak lanbide-taldeko Zerbitzuetako Langilea – Zerbitzu Orokorrak kategoriako / lanpostu funtzionaleko destinoen esleipenari dagokion behin betiko zerrenda. Hortaz, indarrean dagoen legediak langileen arloan ematen dizkidan ahalmenez baliatuta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Onartzea, ebazpen honen I. eranskinaren bidez, Menpekoak/Langileak lanbide-taldeko Zerbitzuetako Langilea – Zerbitzu Orokorrak kategoriako / lanpostu funtzionaleko destinoak betetzeko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko martxoko zikloan onartutako langileen behin betiko zerrenda, lortutako guztizko puntuazioaren hurrenkeran. Hain zuzen, destino horiek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren ekainaren 26ko 597/2023 Ebazpenean daude jasota.

Bigarrena.– Onartzea, ebazpen honekin batera doan II. eranskinaren bidez, Menpekoak/Langileak lanbide-taldeko Zerbitzuetako Langilea – Zerbitzu Orokorrak kategoriako / lanpostu funtzionaleko destinoak betetzeko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko martxoko zikloan baztertutako langileen behin betiko zerrenda, baztertzeko arrazoiak adierazita. Hain zuzen, destino horiek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren ekainaren 26ko 597/2023 Ebazpenean daude jasota.

Hirugarrena.–Ebazpenhonen III. eranskinaren bidez argitara emateko agintzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren ekainaren 26ko 597/2023 Ebazpenaren eranskinean eskainitako lanpostu funtzionalari dagozkion destinoen esleipendunen behin betiko zerrenda, lortutako puntuazioaren hurrenkeran.

Laugarrena.– Behin betiko esleitutako destinoei ezin zaie uko egin, salbu eta uko egite hori beste administrazio publiko edo osasun-zerbitzu batek egindako borondatezko behin betiko mugikortasun-prozedura baten deialdiaren ebazpenari jarraiki destino bat lortzearen ondorioz bada –Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legearen 37.4 artikuluan ezarritakoaren arabera– edo izendapen askeko izendapen baten ondorioz bada.

Bosgarrena.– Destinoa lortzen duten izangaiek betetzen ari diren destinoa utzi beharko dute, destinoen behin betiko esleipenaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo hiru egun balioduneko epearen barruan.

Izangaiek, oro har, aurreko destinoa utzi eta hiru eguneko epean jabetu beharko dira lanpostuaz, baldin eta lanpostuak herri berean badaude; bost eguneko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko beste herri batean badaude; eta hilabeteko epean, izangaiek osasun-zerbitzuz aldatu behar badute. Langileek, emandako destinoaren bidez zerbitzu aktibora itzultzen badira, hilabeteko epea izango dute lanpostuaz jabetzeko, destinoen behin betiko esleipenaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Lanpostuaz jabetzerakoan esleipenduna zerbitzu-eginkizunetan, aldi baterako barne-sustapenean edo behin-behineko atxikipenean badago Osakidetzan, 2019ko azaroaren 27ko 9.9.3 apartatuan aurreikusten den epea izango du lanpostuaz jabetzeko. Hala ere, epe hori konputatzeko, betetzen duen destinoa ere kontuan hartu beharko da, azken horren esleipenduna ez bada behintzat. Horrela izanez gero, lanpostuaz jabetuko da EHAAn destinoak behin betiko esleitzeko ebazpena argitaratu eta hurrengo egunean, baldin eta behin-behineko atxikipenean badago, edo, bestela, kargua-utzi eta hurrengo egunean, baldin eta zerbitzu-eginkizunetan eta aldi baterako barne-sustapenean badago.

Seigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Zazpigarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren 9.8. oinarrian xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 22a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

2024ko maiatzaren 22a, asteazkena

I. ERANSKINA

597/2023 EBAZPENAREN ZIKLOA

ONARTUEN BEHIN-BETIKO ZERRENDA

KATEGORIA: ZERBITZUETAKO LANGILEA

LANPOSTU FUNTZIONALA: ZERBITZUETAKO LANGILEA

Ordena	NAN	Izen-abizenak	Guztira
1	***9894**	Fontalva Navarrete, Cristobal	45,9670
2	***5430**	Larriba Mantilla, Rosa Maria	29,8530
3	***4153**	Agote Prestamero, Miren Nekane	25,0060
4	***9669**	Murciano Estevez, Sandra	24,0880
5	***7866**	Cruz Catalan, Maria Josefa	24,0750
6	***5379**	Peruchena Zugasti, Juana Isabel	22,9740
7	***9400**	Angulo Abaigar, Begoña	22,7560
8	***9644**	Molina Gorostizu, Garbiñe	21,5530
9	***7162**	Guinea San Pedro, Aitziber	18,1520
10	***2245**	Rodriguez Molina, Francisco	16,6280
11	***5392**	Rico Marcos, Alberto	14,6700
12	***8156**	Ramirez Jodar, Maria Jose	11,8950

2024ko maiatzaren 22a, asteazkena

II. ERANSKINA

597/2023 EBAZPENAREN ZIKLOA

BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

KATEGORIA: ZERBITZUETAKO LANGILEA

LANPOSTU FUNTZIONALA: ZERBITZUETAKO LANGILEA

NAN	Izen-Abizenak	Baztertze Arrazoia
***4716**	Calleja Villate, Enrique	Zikloari uko egin dio
***7859**	Gonzalez Rodriguez, Maria Isabel	Ez du plazarik kategorian
		Ez da estatutario finkoa
		Ez du 2.1.2. oinarria betetzen
***2942**	Perez Ramos, Aranzazu	Zikloari uko egin dio
***7224**	Prestamero Ruiz De Azua, Maria Begoña	Lehiaketan atzera egin du
***5263**	Renteria Ibañez, Maria Pilar	Llierako egon beharreko gutxieneko denbora 1 urte
***7223**	Sastre Olmedo, Paloma	Ez du plazarik kategorian
		Ez da estatutario finkoa
		Ez du 2.1.2. oinarria betetzen

2024ko maiatzaren 22a, asteazkena

III. ERANSKINA
597/2023 EBAZPENAREN ZIKLOA
LANPOSTUEN BEHIN BETIKO ESLEIPENA
KATEGORIA: ZERBITZUETAKO LANGILEA
LANPOSTU FUNTZIONALA: ZERBITZUETAKO LANGILEA

NAN	Izen-abizenak	Zerbitzuetako Erakundea	Destinoa	HE	Derrig. data
***9894**	Fontalva Navarrete, Cristobal	Arab. Os. Mentaleko Sarea	Osasun Mentaleko Sarea-Egitura orokorrak / Arabako Ospitale Psikiatrikoa-Vitoria-Gasteiz / Zerbitzu Orokorrak-Kafetegia-Kafetegia / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikoko gehiago	1	
***5430**	Larriba Mantilla, Rosa Maria	Ezker.-Enkar.-Gurut. ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / ZerbitzuOrokorrak-Ikuztegia / Arropa Zuria-Arropa Zuria / 2 Txanda-2 txanda Go/A-Asteburuekin edota jaieguneekin	1	
***4153**	Agote Prestamero, Miren Nekane	Donostialdeko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak -Ospitaleko Arreta / Donostiako Unibert. Ospitalea-Donostia/San Sebastián / Zerbitzu Orokorrak-Garbitxeta-Garbitxeta / 2 Txanda-2 txanda Go/A-Asteburuekin edotajaiieguneekin	1	2023-12-03
***9669**	Murciano Estevez, Sandra	Santa Marina Ospitalea	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Santa Marina Ospitalea-Bilbao / Zerbitzu Orokorrak-Ikuztegia / Arropa Zuria-Ikuztegia / Arropa Zuria / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Asteburuekin edota jaieguneekin	1	2022-11-20
***7866**	Cruz Catalan, Maria Josefa	Goierri-Urola Garaiko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Zumarragako Ospitalea-Zumarraga / Zerbitzu Orokorrak-Sukaldea-Sukaldea / 2 Txanda-2 txanda Go/A-Ez espezifikoko gehiago	1	
***5379**	Peruchena Zugasti, Juana Isabel	Debabarreneko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak -Ospitaleko Arreta / Eibarko Ospitalea-Eibar / Zerbitzu Orokorrak-Garbitxeta-Garbitxeta / Arratsaldez-Arratsaldez 15:00-22:00-Ez espezifikoko gehiago	1	2023-03-08

2024ko maiatzaren 22a, asteazkena

NAN	Izen-abizenak	Zerbitzuetako Erakundea	Destinoa	HE	Derrig. data
***9400**	Angulo Abaigar, Begoña	Arab. Os. Mentaleko Sarea	Osasun Mentaleko Sarea-Egitura orokorrak / Arabako Ospitale Psikiatrikoa-Vitoria-Gasteiz / Zerbitzu Orokorrak-Sukaldea-Sukaldea / 2 Txanda-2 txanda Go/A-Asteburuekin	1	
***9644**	Molina Gorostizu, Garbiñe	Bilbao-Basurtuko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Basurtuko Uniberts. Ospitalea-Bilbao / Zerbitzu Orokorrak-Garbiñe-Garbiñe / 2 Txanda-2 txanda Go/A-Larunbatekin	1	
***7162**	Guinea San Pedro, Aitziber	Uribeko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Urdulizko Ospitalea-Urduliz / Zerbitzu Orokorrak-Ikuztegia / Arropa Zuria-Arropa Zuria / 2 Txanda-2 txanda Go/A-Asteburuekin edota jaiegunekin	1	
***2245**	Rodriguez Molina, Francisco	Gorlizko Ospitalea	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Gorlizko Ospitalea-Gorliz / Zerbitzu Orokorrak-Biltegia/Hornidurak-Biltegia / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikoko gehiago	1	2023-12-03
***5392**	Rico Marcos, Alberto	Bilbao-Basurtuko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Basurtuko Uniberts. Ospitalea-Bilbao / Erreten Unitatea-Erreten Unitatea-Erreten Unitatea / Txandakakoa, 3 Txandatan-Txandakakoa, 3 txandatan-Ez espezifikoko gehiago	1	
***8156**	Ramirez Jodar, Maria Jose	Bizk. Os. Mentaleko Sarea	Osasun Mentaleko Sarea-Egitura orokorrak / Bermeoko Ospitalea-Bermeo / Zerbitzu Orokorrak-Sukaldea-Sukaldea / 2 Txanda-2 txanda Go / A-Asteburuekin edota jaiegunekin	1	